

BESTELAKO XEDAPENAK

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA

3560

EBAZPENA, 2024ko uztailaren 9koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, ekonomiaren hainbat sektoretan energia berriztagarri termikoen instalazioak ezartzeko pizgarri-programaren deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoak hirugarren aldiz handitzea erabakitzen duena, Europar Batasunak (NextGeneratioEU) finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan energia berriztagarri termikoen instalazioak ezartzeko pizgarri-programak egikartzeko autonomia-erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei laguntzak zuzenean ematea onartzen duen abenduaren 21eko 1124/2021 Errege Dekretuaren bidez, zeina 2021eko abenduaren 22ko 305. zenbakiko BOE Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen, ekonomiaren hainbat sektoretan instalazio berriztagarri termikoak ezartzeari lotutako pizgarriak emateko oinarri arautzaileak ezarri ziren, betiere Europar Batasunak (NextGenerationEU) finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Errege Dekretu horren V. eranskinean ezarritako laguntzaren zenbateko totala kontuan hartuta, Euskadiri dagokion aurrekontua 8.941.671 euro da.

Bigarrena.– Euskadirako esleitutako aurrekontu osotik (8.941.671 euro) % 10 (894.167,10 euro) erreserbatu zen Eusko Jaurlaritzak burutu beharreko zuzeneko inbertsioak egiteko, 1124/2021 Errege Dekretuan adierazitakoari jarraikiz.

Hirugarrena.– 2022ko martxoaren 21eko EHAA Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (57. zenbakia) argitaratutako EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2022ko martxoaren 8ko Ebazpenaren bidez Europar Batasunak (NextGenerationEU) finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan ekonomiaren hainbat sektoretan energia termiko berriztagarrien instalazioak ezartzeko pizgarri-programa arautzen duten oinarriak onartu, deitu eta argitaratu ziren.

Laugarrena.– 2022ko uztailaren 15eko EHAA Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (137. zenbakia) argitaratutako EEEko zuzendari nagusiaren 2022ko ekainaren 30eko Ebazpenaren bidez aldatu zen Europar Batasunak (NextGenerationEU) finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan ekonomiaren hainbat sektoretan energia termiko berriztagarrien instalazioak ezartzeko pizgarri-programa arautzen duten oinarriak onartu, deitu eta argitaratzen zituen 2022ko martxoaren 8ko Ebazpena.

Bosgarrena.– 2023ko urriaren 17ko EHAA Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (198. zenbakia) argitaratutako Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2023ko urriaren 2ko Ebazpenaren bidez Europar Batasunak (NextGenerationEU) finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan ekonomiaren hainbat sektoretan energia termiko berriztagarrien instalazioak ezartzeko pizgarri-programaren aurrekontu-zuzkidura aldatu zen, 8.941.671,00 euroko zenbateko gehigarriarekin.

Seigarrena.– 2023ko abenduaren 12ko EHAA (235. zenbakia) argitaratutako Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2023ko urriaren 29ko Ebazpenaren bidez Europar Batasunak (NextGenerationEU) finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan ekonomiaren hainbat sektoretan energia termiko berriztagarrien instalazioak ezartzeko pizgarri-programaren aurrekontu-zuzkidura aldatu zen, eta 4.911.153,00 euroko zenbatekoa gehitu zen.

Zazpigarrena.– 2023ko abenduaren 29ko EHAA (247. zenbakia) argitaratutako Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2023ko abenduaren 28ko Ebazpenaren bidez erabaki zen besteak beste ekonomiaren hainbat sektoretan energia termiko berriztagarrien instalazioak ezartzeko pizgarri-programaren indarraldia luzatzea, Europar Batasunak (NextGenerationEU) finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Zortzigarrena.– 2024ko martxoaren 8an argitaratutako EHAA (50. zenbakia) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako EEEn zuzendari nagusiaren 2024ko otsailaren 20ko Ebazpenaren bidez onartu zen Europar Batasunak (NextGenerationEU) finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan ekonomiaren hainbat sektoretan energia termiko berriztagarrien instalazioak ezartzeko pizgarri-programa arautzen duten oinarriak onartu, deitu eta argitaratu zituen 2022ko martxoaren 8ko Ebazpenaren bigarren aldaketa.

Bederatzigarrena.– 1124/2021 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraikiz eta horretarako alde zuzen egindako eskaerarekin, 2024ko maiatzaren 23ko Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuko presidentearen ebazpen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoari 3.957.020,00 euroko zenbateko gehigarria ematea erabaki zen, eta beraz, ekonomiaren hainbat sektoretan energia berriztagarri termikoen instalazioak ezartzeko pizgarri-programarako aurrekontua 26.751.515,00 euro da guztira, Europar Batasunak (NextGenerationEU) finantzatutako Europako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Azaldutakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ekonomiaren hainbat sektoretan energia berriztagarri termikoen instalazioak ezartzeko pizgarri-programarako baliabide ekonomikoak 3.957.020,00 eurotan handituko direla erabakitzea, Europar Batasunak (NextGenerationEU) finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Horrela, ekonomiaren hainbat sektoretan energia berriztagarri termikoen instalazioak ezartzeko pizgarri-programaren deialdia finantzatzeko baliabide ekonomiko totalak 26.751.515,00 euro izango dira, Europar Batasunak (NextGenerationEU) finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren konturako pizgarri-programa honetara bideratutako igoera horren ondoriozko diru-kopurua 3.841.767,00 euro da, zeharkako gastuak (115.253,00 euro) kendu ondoren, eta ondorengo zenbatekoen arabera banatuta geratzen da pizgarri-programa bakoitzerako, honako banakapen honen arabera:

1. pizgarri-programa – Industriako, nekazaritza eta abeltzaintzako, zerbitzuetako, eta ekonomiaren beste zerbitzu batzuetako –bizitegi-sektorea barne– sektoreetan energia berriztagarri termikoen instalazioak egitea. 3.116.653,00 euro.

2. pizgarri-programa – Sektore publikoko bizitegitarako ez diren eraikin, establezimendu eta azpiegituretan energia berriztagarri termikoen instalazioak egitea. 725.114,00 euro.

2024ko uztaillaren 19a, ostirala

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du; hortaz, nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio EEEko zuzendari nagusiari, EHAAan argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, EHAAan argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Bilbao, 2024ko uztaillaren 9a.

Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia,
IÑIGO ANSOLA KAREAGA.